


# Baleike

Zumaitako herri  
aldizkaria.  
6. go zbkia.  
1994ko azaroa.  
— 100 pzta. —



## Historiaren trena berreskuratu nahian

**Elkarrizketa:**  
**Imanol Osa,**  
itxura guztiei  
aurre eginez.

**Kirola:**  
**Igor Beristain,**  
puntako  
txirrindularia.

**Sexualitatea:**  
**Ogino metodoa:**  
haurdun geratzeko  
era bikaina.




Ana Rodriguez-ek utzitako argazkia.

*Hemen duzuen argazki honetan, jadanik esistitzen ez den estazio zaharra ikus dezakezue. 1918. urteko edozein egunetako goizeko hamaikak hamar gutxitan ateratako argazki honetan azaltzen direnak hauetxek dira: (ezker-eskubi) Manuel Azkarateren semeak, Modesto Urruzunoren semea, Manuel Azkarate, Ana Rodriguez, Jesus Rodriguez (estazio burua), Modesto Urruzuno (estazio-mutila), Jose Udabe ("guardagujas"), eta leihoan azaltzen dena, Jacinta Palacios (estazio buruaren emaztea).*

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**



ZUMAIako INSTITUTUA  
Aita Mari Auzategia, z/g  
20750 - ZUMAI  
86 08-09/86 08 10

Zumaiako Udalak diruz  
lagunduriko aldirakaria



**BALEIKE**

**HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea  
tfnoa: 86 10 56

argitaratzailea

**ZUMAIAKO GAZTE  
BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua  
Esther Martinez  
Itziar Manzisidor  
Xabier Azkue  
Igor Uranga  
Josu Waliño  
Gorka Zabaleta  
Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea,  
Miriam Romatet,  
Aitor Leiza, Izar Martin,  
Imanol Manterola, Ander  
Hormazuri, Bertil L.

publizitatea

Amaia Korta

(860422)

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 600 ale

Lege gordailua: SS-405/94

**BALEIKEk ez du bere gain  
hartzen aldizkarian  
adierazitako  
esanen eta iritzien  
erantzunkizunik.**

Argazki Zaharra.....	2
Hitzaurrea.....	3
Ze Berri?: .....	4
Elkarrizketa: Imanol Osa.....	6
Inkesta fotografikoa.....	9
Hezkuntza: Liburutegia.....	10
Natura: San Miguel (Artadi).....	12
Erreportaia: Tren estazio berria.....	14
Komikia: .....	18
Antimilitarismoa: Soldaduzkarako zozketak.....	20
Sexualitatea: Ogin metodoa.....	22
Izerdi Patsetan: Igor Beristainekin solasaldia.....	24
Gaztedia: Gazte irteera, "Euskal Jai" gaztetxea.....	27
Kultur Agenda.....	30
Musikaz blai: Ama Say.....	32
Denborapasak.....	34
Merkatu txikia.....	35
Gutunak.....	35

**H**itzaurrea

*Hementxe duzue berriro ere Baleikereren trena hilabeteroko estazioa agindu bezala beteaz. Badakizue gure trenak mota guztitako bagoiak dituela, zuek gustokoen duzuen aukera dezazuen. Oraingoan proposatzen dizkizuegun bidai lagunak ere ez dira nolanhikoak. Solasaldi atsegin eta errebeindikatibo bat izan dezakezue Imanol Osarekin; edo nahiago badezue izerdi pixkat bota, bizikleta hartu eta Igor Beristainekin joan zaitzekete pasiatzera. Manuel Esnalek ere kontatuko dizkizue zenbait istorio estazioaren historiari buruzkoak. Honetaz gain, hilabeteroko beste hainbat kontu, noski. Lasai, bidai honetan ez zarete aspertuko eta! Baina kontutan izan hau: ez dago bidaiaririk gabe luzaro iraungo duen trenik. Beraz, erosi zeuen txartelak! ... gogoratu urte osorako bonoak ere badaudela...*

**PREMIAZKO TELEFONOAK:**

Kultur Etxea .....	86 10 56	Tren Geltokia.....	86 11 27
Polikiroldegia.....	86 20 21	Taxi geltokia.....	86 13 60
Gurutze gorria.....	86 10 93	Bake epaitegia.....	86 00 67
Udaletxea.....	86 02 50	Posta.....	86 15 00
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Udaltzaingoa.....	86 18 70
Osasun zentrua.....	86 08 62	Pilotalekua.....	86 21 72
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Ludoteka.....	14 32 64
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

# BARRAKO OBRAK AUZITAN

## Dikearen eraikuntza gelditzeko eskaera ezeztatu du tribunal gorenak

**Zumaia Bizirik taldeak eskaturiko obren paralizazioa tribunalagatik ezeztatua izan bada ere, talde honek auzitegian ezarritako errekurtsolari buruzko erabakirik ez da hartu oraindik.**

*Baleike*

Zumaia Bizirik taldeak, 1993ko abenduan errekurtsio bat aurkeztu zuen Auzitegi gorenean, lau ataletan finkatua:

1.- "Estudio de extracción de áridos" baten beharra: barra eta eskoilera berrien eraikuntzarako mugitu behar ziren hondarrak zer motakoak ziren, nola aterako ziren, nora botako ziren, etab.

2.- "Estudio de impacto medio-ambiental": Eraikuntza berri honek bere ingurunean izango lituzkeen eraginengatik.

3.- Estatu Espainiarreko Costas saileko baimena jaso aurretik obra hasi izana.

4.- Jerarkizazioa: Eraikuntza bat aurrera eramateko ingurunearen plangintza baten barru egotea.

Lau puntu honetan aipaturikoak falta zirela eta, errekurtsioa aurkeztu orduko hasia zegoen obra gelditzea eskatu zuen Zumaia Bizirik-ek auzitegian. Udalak bere aldetik eskaera hau inpugnatu zuen, talde honek aurkezturiko arrazoiaren pisu eza alegatuz, hala nola, proiektuak duen onarpen soziala, eta obra



*Eritzi ezberdinak daude dike berriaren eraikuntzaz.*

paralizatzeak suposatuko lukeen diru galera.

Orain, Auzitegi gorenak, obraren geldiketaren eskaera gaitzetsi du, Zumaia Bizirik-ek aurkezturiko errekurtsioan ez duelako zenbaiterainoko "inpakto medio-ambientala" egon daitekeen zehazten, eta aldi berean obrak duen onarpenagatik herri eta instituzio mailan.

Zumaia Bizirik-eko partaide den Josu Uranga-ren ustez auzitegiaren erabakia "kontraesan garbi batean erortzen da, guk eskatzen duguna hain zuzen ere estudio de impacto medio-ambiental bat egiten delako, beraz nola zehaztu dezakegu aurrez zenbaterainoko inpaktoa izango duen?".

Hala ere, talde honek ezarritako errekurtsioa aurrera doa, beraien ustetan barra honek "astilleroarentzat izugarrizko limitazioa suposatuko bait luke, 1.300 TRBtik gorako untzirik

ezin baitaiteke sar barra berriarekin". Gainera, beraiek diotenez, "barraren berrikuntzak zuzenki ikutzen duen jende asko zalantzan jartzen hasi da, limitazio horiek ikusirik".

Obra hau egin aurretik, draga baten beharra ere azpimarratu zuten, zeren azken finean "obra egin aurretik edo beranduago draga egin beharra dago, aurrez eginez gero, ibaiaren korronteen indarrak, eta sedimentoen garraioa neurtu daitekeelarik".

Honen inguruan, Zumaia Udaleko alkate-ordea den Asier Esnal-ek (EAJ/PNV) adierazi zuenez, barraren berrikuntza ezinbestekoa da Astilleroen etorkizunerako, eta kirol portuaren eraikuntza lagunduko duten zerbitzu berrien sorrerarako.

Hontaz gain azpimarratu zuen, "Zumaiaren etorkizuna obra honen esku dagoela". ■

**Arkupe**

*Okindegia  
eta gosariak*

**Kale nagusia, 2 ZUMAIA**



**Z U M A I A**



**AUTO -ESKOLA**



- \* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- \* Praktika eta azterketak Azpeitian
- \* GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAIA

# HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK

Herri mailako parte hartzeari begiratzen badiogu, oraingo honetan, boto-emale gehiago izan dugu Zumaian.


Honen ondorioz, PP ezik, alderdi guztiek jasotako boto-kopurua igo egin da hauteskunde europarrekin konparatuta.

Horrela, EAJ/PNV izan dugu garaile herrian, 1350 botoz, aurrekoan baino 313 boto gehiagokin. HB da bigarren indarra, 902 botoz, 132 boto gehitu dituelarik. PSOE hirugarren, 601 botoz, eta 22 boto igoz. EA-k 583 boto jaso ditu, 108 bototan igo delarik, PP berriz, **11 bototan jeitsi** da 223 botorekin, eta azkenik IU 11 boto igo 162 boto lortu dituelarik. Ke pasote: UA-k 6 boto lortu ditu! ■



*Europarretan, eta azkenengotan ere gerra ederra eman dute alderdiek beraien kartelekin.*

## EMAITZEN KONPARAKETA GRAFIKA



### Ur-gintza s.l

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK  
 GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK  
 ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK  
 SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g Tel: 148082  
 78 Posta kutxa Fax: 148081  
 20740 IRAETA - ZESTOA

## NIKOL-ENEA TABERNA

Amaiako plaza  
 ZUMAIA

Tfnoa: 861440

# Imanol Osa: "Homosexualitatearen inguruan hipokresia handia dago"

**Zorionez homosexualen irudi txarra aldatzen ari dela dio.**

Zumaia aldean tokirik aurkitu ezinik, orain dela bost urtetik Imanol Osa Bartzelonan degu pelukero lanetan. Hain pertsonaia berezi eta era berean atsegina degun honek, bere homosexual egoera ez du sekula ezkutatu, beste askok agian egingo ez zutena. Jarrera honek bizitzaz erabat gozatzea ekarri dio, zurrumurru eta esamesei inolako kasurik egin gabe.

*Baleike*

**Zer sentitzen dezu Zumaia bezalako herri batean homosexuala zarela azaltzerakoan? Marjinetua sentitu zera?**

Ez inolaz ere. Harro nago baina ez homosexuala izateagatik, baizik eta ni naizelako naizen bezela; holaxe jaio naiz. Min gehien ematen didana da, jende askok ez duela onartzen bere homosexual kondizioa. Erreprimitu asko dago.

**Nola erreakzionatu zuen herriko jendeak jakin zuenean homosexuala zinela?**

Egia esan ez zait batere inporta jendeak eta gizarteak zer esaten duen. Inorekin sartzen ez naizen bitartean eta inor nerekin ondo; oraingoz ez det arazo gehiegirik izan. Hori bai, norbaitek niri min eginez gero nik berdin jokatzeko det. Askotan entzuten



*"Look" berriarekin agertu zitzaigun Zumaian*

dituzu batetik edo bestetik zurrumurru batzuk, ez diet kasurik egiten ordea. Kasu egingo banie poliki-poliki hondoratzen joango nintzateke eta ez du merezi.

**Zergatik joan zinen herritik?**

Pelukeroa naizenez hemen ez nuen lekurik, nahiko itota sentitzen nintzen. Bartzelona bezalako hiri batean aldiz, espazio gehiago dezu zeuri gustuzen zaizuna egiteko, beste mundu bat da. Askoz gehiago ikasten da horrelako hiri batean eta profesional mailan progresatzeko beharrezkoa ikusten nuen hemendik aldegitia. Gainera, homosexuala izanik pentsa

zer diferentzia dagoen Zumaian bizi edo Bartzelonan; ez du zerikusirik. Nere munduan ibiltzeko ez det inolako oztoporik, jende pila dago ni bezalako. Askoz erosoago sentitzen naiz.

**Arazo asko aurkitu dituzu lan munduan, giza harremanetan e.a. homosexuala izateagatik?**

Ez. Lanean adibidez emakumeei guk orraztea, ilea moztea eta beste zenbait gauza egitea asko gustatzen zaie. Edertu egiten ditugu, toke oso femeninoa emanez eta ez gaur egungo emakume gehienak bezela ia-ia gizon baten antza gehiago dutela emakume

**EGOKI**  
**ERLOJU DENDA**

E: Gurrutzaga plaza, 6  
**ZUMAIA**

**FRONTON**  
**Taberna**

E: gurrutzaga plaza  
**Tel: 862172 ZUMAIÀ**



**Surf**

Torre Luzea, 2  
Tel: 83 50 24  
20600 ZARAUZ

Embera, 4g.  
Tel: 86-23 69  
20750 ZUMAIA



Homosexuala izateagatik ez duela oztoporik eduki aitortu digu Imanolek

batena baino. Hau neretzat estetikari garrantzi gutxi ematen diotelako da, ez dira batere zaintzen. Estetikari arreta handiago jarri beharko liokete, baina orokorrean, bai emakumeek eta bai gizonezkoek.

## **Homosexualitatea gizartean goruntz doan fenomenoa da**

### **Herrira bueltatzerakoan jendeak nola hartzen zaitu?**

Ondo. Hala ere, honek ez dit loa kentzen, zeren azken finean Zumaiara etortzen naizenean nere senitartekoak bisitatzeko da. Gertatzen dena da jendearen artean faltsukeri

dexente dagoela eta gutxien uste dezunean bizkarra ematen dizute. Baina lehen esan dedan bezala, ez nau honek batere kezkatzen.

### **Diferentzia handia al dago Bartzelonako pentsakera, giroa eta Zumaiakoa konparatuz?**

Honbre, Bartzelonan hemen baino esparru zabalagoa dezu, ezin daiteke konparatu hamar mila biztanletako herri txiki bat eta milioiak dituen hiri handi bat. Edozein modutan, ez det uste pentsakera modernoagoa, liberalagoa dagoenik Bartzelonan Zumaian baino. Homosexualitatearen kasuan, ez zait iruditzen hemen gaizki ikusia dagoenik, ez det somatu behintzat. Nere kasuan ni jende guztiarekin ondo eramaten naiz, oso irekia naiz. Gaur egun komunikazioa oso gauza garrantzitsua da eta itxia bazera asko mugatzen

zera, zure ingurunearekin gozatzeko posibilitateak murriztuz.

### **Itxurari garrantzi handia ematen al diozu?**

Noski, nere itxuratik bizi bainaiz. Bizi naizen mundu honetan imajinak garrantzi handia du, asko zaindu beharreko alorra izanik. Moda eta estetikaren inguruan bizi naizenez, itxura ezinbestekoa da; gustatzen zait gainera.

## **Gaur egun jendea oso superfiziala da**

### **Garai batetik hona Zumaiako gazteengan aldaketarik igarri al dezu?**

Hasteko, jendearekin gehiago hitz egin behar dela esango nuke, baina ez hitz egin hitz egiteagatik azaleko gauzetaz, barneko gauzetaz, sakontasuna bilatuz baizik. Hemen nik behintzat hau ez det lortzen, ezin dezu jendearekin bene-benetan hitz egin ez baitira batere irekitzen. Orokorrean, jendea oso superfiziala da, hipokrita xamarra eta hau ikusirik nik neronek ere horrela jokatzen det.

### **Inoiz pentsatu al dezu berriro Zumaiara etortzea bizitzera?**

Ez dakit, bost urte daramatzat Bartzelonan bizitzen eta ez dakit bertan geratuko naizen ere. Ez dakit non eta nola biziko naizen, gauza askoren arabera egongo da hau eta batipat lanaren arabera. Orain



**ERTZ**  
INFORMATIKA

- \* KONPUTAGAILUAK
- \* OFIZINAKO TRESNAK
- \* AKADEMIA

Mendaro Marinelá, 3 behea  
Telefonoa: 143395 ZUMAILA



• SUKALDERAKO ALTZARIAK  
• ELEKTROGAILUAK  
• BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Erribera, 8  
Telefonoa 861694



ARRAIN ETA  
MARISKOAK

BARAZKIAK  
ETA  
AURREZ  
PRESTATUTAKO  
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

Bartzelonako pelukeria batean oso gustora nago lan egiten eta baita hango bizimoduarekin. Hemendik urte batzuetara auskalo, nork daki. Bizitza egunetik egunera disfrutatu behar da konturatu orduko bukatzen joaten da eta.

## HIESari buruz, zer. Beldur diozu, errespetoa?

Beldurra baino gehiago errespetoa. Hartu behar dituzun prebentzioak hartzen ez badituzu hor dagoen gauza bat da, baina hau bai homosexual eta bai heterosexualen artean. Orain dela urte batzuk esaten ze HIESa harreman homosexualetatik sortutako zerbait zela, baina hori ez da egia. Denok dakigu HIESa izateko hainbat arrazoi ezberdin daudela. Garbi daukat hala ere, plazerreko ordu batzuk pasatzeagatik bizitza ez dedala arriskutan jarriko, ezta pentsatu ere. Hobe da prebenitza gero penatzea baino.

## Homosexualen artean erreprimitu asko dago

**Zer deritzozu herriak jasaten ari den aldaketetaz: hondartzaren itxura berria, kirol portua,...**

Pertsonalki kirol portua egitea ez zait gustatzen, nahiago det orain eta beti egon izan den bezala mantentzea. Baina iruditzen zait beste gauza askotan bezala, hemen ere politikatik asko egongo dela, benefizio asko egonez gutxi batzuentzako.



*Homosexualitatearen epaitzerako orduan gazteak gurasoak baino okerragoak direla azaldu zigun*

Portua eraikitzeke ez det inolako beharrik ikusten. Horrelako proiektuetan hainbeste diru gastatu beharrean Udaletxea askoz garrantzitsuagoak diren beste haibat gauzetaz kezkatu beharko litzateke, lana ematean adibidez.

**Badirudi, gaur egun jendeak ulertzen eta onartzen duela homosexualitatea, pentsakera modernoa, liberalagoa dagoela. Hau egia da ala hipokresia hutsa da?**

Jende ugari dago ahoz gauza asko esaten dituenak; homosexualitatea onartzen duela, oso liberala dela e.a. Baina gero benetan adierazi dutenaren kontrakoa egiten

dute. Oraingo gazteak hipokresia honen islada garbia dira, esaten dutenak homosexualitatea onartzen dutela baina azkenean konturatzen zera beren gurasoak baino askoz okerragoak direla. Harrigarria iruditzen zait XXI. menderako hain gutxi falta denean oraindik ere jarraitzea entzuten izugarritzko astakeriak homosexualitatearen inguruan. Badirudi hala ere, homosexualak lehen zuen irudi txarra poliki-poliki hobetzen doala, jendea kontzientziazten hasi dela. Kontutan hartu behar da bestalde, homosexualitatea gizartean goruntz doan fenomeno bat dela, gero eta indar gehiago duena. ■

**leize**  
**TABERNA**

Juan Belmonte, 6  
Tel. 860415 ZUMAIA

  
Erribera Kalea, 6  
Telefonoa: 86 17 07  
Fax: 86 17 07  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

  
Amaiako plaza, 7  
Tel.- Fax: 862385  
20750 ZUMAIA



## Zer iritzi duzue Zumaiako gazte jendeari buruz?



**Estanis Azkue:**

Nahiko ona iruditzen zait, egongo dira beste erako gaztiak ere, baina generalian hemengo gaztiak nahiko jatorrak dira, bai.



**Alfonso Iraundegi:**

Denetik dago, deporteak egiten onak dira, baina txorakeriak egiten ere oso onak. Diferentzi asko bilatzen det lehengo gaztediarekin. Orain askatasun gehiago dute.



**Xendua:**

Gaztiak oso espabilauak dira, ni hortik pasata nago. Oso txorua da gaztia, buruan haize ugariakin. Zuek ze uste zue, ni Zumaiko alkatia naiz! Eta kontuz, ze galdetzen diazuen ze bestela kartzela sartuko dizuet, kariños!



**Kontxita Zubia:**

Zumaiko gaztiak daude bi klasetakoak, batzuk bihurriagoak eta bestiak hobeagoak, mundu guztian bezela, ez al da? Oso alaiak ere bai. Nik dantza egitia oso gustokua nun ta horregatik marimutil deitzen zien baina gaztiak ere in bihar du.



**Prudentzio Aldalur:**

Danetikan dago. Lanik ez dago gaztientzat, zuek gaztiak, gaizki ibiliko zerate lanakin. Lenoko gazte jendea oraingoa baino gehiago gustatzen zait. Famili berri bat sortzea oso zaila da garai hauetan.



**Eulali Alberdi:**

Konfidantza eman behar zaio gazteari, tratu ona. Gurasoak gazteari entzuten jakin behar du. Baina generalian gazte onak daude Zumaian. Festa gutxi antolatzen dira ta beti jende igualak egiten du lana.



**Tomasa Arregi:**

Ondo bilatzen ditut hemengo gaztiak, oso formalak. Lenoko gazteekin konparatuta oraingoak kertenagoak iruditzen zaizkit, baina hala ere oso jatorrak, eh?

## LIBURUTEGIA, AUKERA BAT BAINO GEHIAGO

**Ezaguna dugu Zumaian, Foronda kultur etxean kokatzen den liburutegia, eskeintzen dizkigun aukerak baliagarriak zaizkigularik.**

*Baleike*

1990. urtean ezarri zuten liburutegia Forondan. Lehen Aita-Mari zinema zaharraren gainean baitzuen bere lekua.

Liburutegi orok eskeini ohi duen bezala, hiru sailetan gerta dakiguke lagungarri Zumaiaokoa ere:

**-Kontsulta eta erreferentzia:** bertako liburuei buruzko zalantzak argitzeko garaian arduraduna laguntzeko prest egongo da.

**-Areto zerbitzua:** edonork du aukera bertara hurbiltzeko eta bertako zerbitzuez baliatzeko.

**-Mailegua:** kasu honetan bazkide izan beharra dago, libururen bat etxera eramanez gero.

Aipatu berri dugun bazkide izateko kontuari erreparatuaz, karneta edukitzea beharrezkoa da, hau edonork atera dezakeelarik edozein momentutan. Horretarako, 500 pza. eta norberaren argazkiarekin Foronda aldera inguratzea nahikoa da.

Liburutegia bi gelez osatua dago. Bat, hamalau urterarteko gaztetxoentzat da, Arantxa Eizagirre aurkitzen delarik arduradun bezala. Gela honetan, hemezortzi pertsonentzako jarlekuak daude. Bostehun bazkide inguru ditu gaur egun gazteen liburutegi honek.

Bigarren gelari dagokionez, hamalau urtetik gorakoentzat da, bertan arduraduna Josu Egaña delarik. Hogeita hemezortzi lagunentzako lekua dago hemen, larehun eta laurogei bazkide dituelarik.

Momentu honetan 7.418 liburu daude Forondako liburutegian. Estatistiken arabera, biztanle bakoitzeko bi liburu egon beharko lukete, baina Zumaiaaren kasuan behintzat, hau ez da gertatzen. Diru laguntzak murrizten ari dira azken urte hauetan, eta ez da posible nahi haina liburu ekartzea.

Gutxi gora-behera liburutegian aurkitzen diren liburuen %80ak mailegatuak izateko posibilitateak eskeintzen ditu. 1994an orain arte, 961 liburu mailegatu dira helduen liburutegian, gaztetxoenean ere beste horrenbeste edo gehiago. Gehien



*Aproposa da liburutegia, zerbait ikasi nahiz talde lanak egiteko.*

Auto - Konponketak

# ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea  
20750 ZUMAIA

Telefonoa: 860201

# ITSASKI

## SUPERMERKATUA

Urumea kalea, z/g  
ZUMAIA

mailegatzan direnak, literatur sailari dagozkionak dira, nobela kontenporaneoak orokorki.

Liburutegi hau, talde lanak egiteko erabilia izaten da gehienbat, bertara 14-18 urte bitarteko ikasleak hurbiltzen direlarik gehienbat.

### **Liburutegiko ordutegia:**

**Gaztetxoentzat:**

**16.30 tatik, 20.30 etara.**

**Astelehenetik ostiralera.**

**Gainontzekoentzat:**

**10.00 tatik, 13.00 tara.**

**Larunbatak barne.**

**17.00 tatik, 21.00 etara.**

**Astelehenetik ostiralera.**



*Zenbait umeentzat egunerokoa gertatzen da liburutegira joatea.*

Arduradunen lana ez da aipatutakoa soilik ordea, fitxak prestatu, liburuen erregistroa eraman, pilpilean dauden liburuetaz ezaguera izanik eta jendearen nahia kontuan harturik, liburu berriak ere aukeratzen dituzte.

### **Gutxi gora behera aurkitzen diren liburuen %80a mailegagarria da.**

Liburutegi ondoan artxibo gela bat aurkitzen da, bertan, aspaldiko artikulua eta datuak aurkitzen dira gorderik. Guzti hori zuzentzeko asmoz, Udaletxeak kanpoko enpresa bat jarri du lan horretarako..

Garbiketa aldetik berriz, beharrezkoa zaigu Eulaliek egiten duen lana aipatzea, izan ere berak garbitzen baitu liburutegi osoa.

### **Etorkizunari begira**

Ez da ez erreza liburutegi honetako arduradunaren lana. Zumaian dugun liburutegia bezelako batek, ez ditu Koldo Mitxelena bezalako batek izan ditzakeen erreztasunak, diru-laguntza, material eta antzerakoak lortzeko orduan, horregaitik, liburutegiko atal bakoitza nahiko mugaturik aurkitzen da materiale aldetik, baina kontutan izan behar da, denetik piska bat dagoela..

Hala ere, Zumaian ere badira hainbat ideia, zorte piska batekin, aurrerago martxan jarri ahal izango

direnak. Liburutegiko arduradunari, mailegu zerbitzua informatizatzea gustatuko litzaioke, kontsultak etab. ordenagailu bidez egin ahal genitzaken eran, hala, Zumaitik bertatik, Koldo Mitxelenan aurki. daitezkeen liburuetara iritsi ahal izatea, modem bitartez.

Hala ere, eta esan bezala, guzti horiek noizbait iritsiko den ez daki liburutegiko arduradunak berak ere, bainan bitarte hortan, ziur egon gaitzen, bere eskutik ahal duena egingo duela, gure herrian, ahalik eta liburutegi egokiena izan dezagun.

Bukatzeko, jakin ezazue liburutegiko atea irekirik daudela herritar guztientzat, ez ikasleentzat soilik, helduentzat ere bai. ■

**HARATEGIA  
URDAITEGIA**  
Itzurun Zubaitz-bidea, 1  
20750 ZUMAIA    Telefonoa: 862430

**MILA ILE APAINDEGIA**

**Ile - kosmetikan diplomaturia**  
Foruen Enparantza, 13 - 1    Tfnoa: 861160  
ZUMAIA

**ONCE**

**JOXE  
MANUEL**

**Kupoi batzuk  
erosi eta ...**

**ZORTE ON !!**

# SAN MIGEL (ARTADI)

## Gipuzkoako artadirik interesgarrienetako dago gure herrian

**Herriko txoko eder hau, urbanizazio bidean dagoen ekosistema bat da. Lan honetan gaur egungo artadiaren egoera fisikoa aipatu nahi genuke.**

Zumaiako Natur Taldea

Auzo honek dituen mugarik aipagarrienak honako hauek dira: hegoaldeetik eta mendebaldeetik Urola ibaiak egiten du muga. Ipar mendebaldeetik N-634 errepidea dago. Ekialdeko mugari buruz hitz egiterakoan aipagarria da "Karakas Zahar" eta "Karakas Berri" ren artean dagoen muga, lehenengoa San Migelekoa baita, eta bigarrena, Getariakoa.

Bide-átxurrei dagokien ondorengo laurak dira interes gehien sortzen dutenak:

1- "Artia" baserritikan behera zubi erromanikora jeisten dena; honetatik Oikira azalduko gara.

2- San Migel bertatik GOROSTIA jartzen duen gezia jarraituz "Txanton" baserrira helduko gara eta hemendik beherantz jarraituta Beduara azalduko gara.

3- Zumaiako trenbidea jarraituz "Ildizar" txaletaren parera iritsi gaitezke eta hortik aurrera bide normala jarraitu beharko litzateke goraino iristeko.

4- Txetxu enbarkaderotik bide-átxurra gora hartuta "Sanderain" txaletaren inguruan irtengo gara eta bertatik bide normala hartu beharko da auzuneraino igotzeko.

### Klima

Inguru baten landaretza aztertzerakoan guztiz garrantzitsua da faktore hau, honen ezaugarrien arabera zuhaitz mota ezberdinak sailkatuko baitira lurralde honetan, klimara moldatuz.

Itsasoarekiko hurbiltasunak tenperatura aldaketak biguntzen ditu eta eurijasen gain eragina du. Bi ezaugarri hauek zuzenki eragiten dute artadiarengan, itsasotik pauso batera baitago.

Euri-jasak iraunkorrak dira

urtean zehar, baina indar gutxikoak, normalki. Hezetasun maila nahiko haundia da, eta ondorioz, euri-jasa egun askotan ematen da (160-200 egun/urteko).

Tenperatura bigunak dira; udarak epelak eta neguak ez dira gogorak; gutxitan ematen dira 0° C tik beherako tenperaturak eta elurteak ez dira sarritan ematen.

Baldintza klimatikoak ikusirik, Artadiko landaretza mota ozeanikoaren antzekoa izango da. Euri-jasa ugariak eta tenperatura bigunek paisaia beti berde mantentzen dute.

Hala eta guztiz ere, harrigarria izan daiteke Kantauriko artadia azaltzea, klima mediterraneanarreko bereizgarria baita hau.



Azken urteotan gero eta etxebizitza gehiago egin dira San Migelen.

**ERROTA**  
**ERROTA**  
**OPIL - OKINDECIA**

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68  
 Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01  
 ZUMAIA

**BASADI**  
**ALBAITARITZA**  
**KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
 IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
 - ALBAITARIAK -

LARRIALDIAK  
 · 24 orduetan  
 · Zeure etxean  
 · Telef. 900-282828  
 Abonatu zbkia: 247790

**Landaretza**

Kantauriko artadiaren ezaugarriak garrantzitsuenak hauek ditugu: zuhaitz gazteak, artea eta zuhaixkaz osaturikoak nagusiki (kurpitzia edo "el brusco"), hau dena sasi zahazpilo batez nahasirik (zarzaparrilla).

Moeta bakoitza aztertuz, hauek aurkituko ditugu: artea, kurpitzia, haritza, pagoa, pinua eta baita erramua, gorostia, sagarrondoak, arbusto arrunta, itsas pinua eta ostazuria.


Artearen familian mota asko aurki ditzakegu. Penintsulan ezagunenak *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* dira; lehenengoak aztergai dugun kantauriar artadia osatzen du; bigarrenak, berriz, Carrascal izeneko zuhaiztia osatzen du Mediterraneo aldean.

Gaur egungo Kantauriko arteak iraganeko aroko aztarnatzat har daitezke.

**Fauna**

San Migelen sortzen den ekosistemaren barnean animalia kopuru handia dago.

Besteak beste azeria, eta azkonarraren adibideak aipa ditzakegu; hauek haragijaleak direnez, elikagaien murrizketarekin batera espezieak San Migelen murriztuz doaz. Gainera ehiztari eta baserritarren sari preziatu bihurtzen ari dira.



Azkonarra (*Meles meles*)

Satorra (*Talpa europaea*).

Hegaztiekin gauza bera gertatzen da, zuhaitzen mozketak gehituz baitoaz etxebizitza kopurua haundituz doan heinean. Ondorioz, hain berezia den zuhaizti moeta honen desagertzeak hegazti eta ugaztun basatien desagerketa dakar, guk osatzen dugun gizarte kontsumista honen erruz.

Artadiko hegazti aipagarrienak honako hauek dira: Kukua (*Cuculus*

*canorus*), Txarraskala (*Serinus serinus*), Kaskabeltz haundia (*Parus majur*), Txepetxa (*Troglodites troglodites*), Txantxangorria (*Erethacus Rubecula*) eta Tuntun arrunta (*Punella modularis*).

OHARRA: ia informazio guztia Zumaiako Institutuak 1992-1993 kurtsoan egindako "Zumaiako Inguruneak" lanaren 7. unitatetik atera dugu. Eskerrik asko. ■

**AXIER KIROLAK**

Ortega y Gasset, 2  
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

**BASUSTA ERRETEGIA**

M<sup>a</sup> Dolores Aizpurua

Pantxita Etxezarreta, 25  
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAIA

**BIZKOR FOTOKOPIAK**

Enkuadernaketak  
Plastifikatzeak  
Fax publikoa  
Bulegoko materiala

Basadi 14, behea  
ZUMAIA

Tel/Fax:  
143120

# Aldaketa handiak tren geltokian

Autobusentzako kotxerak eta tailerrak eraikiko dira.


Lehen Urolakoa zena izango da orain geltokia eta kotxeren aurreko lurraldea aprobetxatuz 7000 m<sup>2</sup> ko parke bat egiteko asmoa dago, 474 miloiko aurrekontua duen lan honetan.

Baleike

Dagoeneko hasiak dira tren geltoki inguruan geroko lanak erreztuko dituzten garbiketak burutzen. Trenbideari dagokionez, lehen Urolako trena pasatzen zen tokira aldatuko da; horrela orain dagoen tokia libre geratuko da beste eginkizun batzuetarako. Urolako geltokia zena mantendu egingo dute, baina erabat berrituz eta inguruko anden eta markesinak behar bezela egokituz; Donostia alderako hurbileko zerbitzu bat aurreikusiz, geltokiaren aurrean beste trenbide bat prestatuko da gainera. Geltokira doan pasagunea zabaltzeko asmoa dago, ranpa batzuk ere eginez.

## Kotxera eta tailerrak

Obrak amaitutakoan, geltokian autobusak eta trenak denak batera bilduko dira eta Zumaiako geltokiak lehen zuen garrantzia berreskuratuko du, neurri batean. Urola bailara eta Donostiarako autobus zerbitzuak Zumaian izango dute erdigunea.



Urolako estazio zaharrak garai bateko bizitasuna berreskuratuko du.

Horrela, hiru eraikuntza egingo dira autobusak gorde eta behar denean konpondu ahal izateko; hauetan 30 autobus arrunt 9 artikulatu gordetzeko aukera izango da eta bulegorako eta gidarientzako zerbitzuak ere beteko dituzte eraikuntza hauek. Inguruko bideak, normala denez, horrelako autobusak ibiltzeko moduan ibiltzeko egokituko dira.

## Urbanizazioa

Aipagarria iruditzen zaigu erabat libre geratzen den gainontzeko lurarekin dagoen asmoa: parke bat

egitea hain zuzen ere. 7000 m<sup>2</sup> izango ditu parke honek, berdeguneak, bankuak eta iturriak edukiko ditu eta erabilpen ugari kirol instalakuntza bat ere bai, Zumaiako Udalak hala eskatuta.

Bestalde, inguru hauek asfaltatuak izango direnez, 58 plazetako aparkaleku bat ere prestatuko da.

Lan hauek denak BALZOLA-CYCASA-COBRA enpresa taldeak egingo ditu; aurrekontua 474 miloikoa da eta 8 hilabeteko epean amaitu nahi dituzte lanak, beraz, 1995 amaierarako dena prest egon daiteke.



**Azkue Autoak**

Estazioko kalea, 19  
20750 ZUMAIA

Telefonoa: 861433  
Fax: 861067

**BALEZULO**


**IMPORTATURIKO  
ERROPA ETA ARTISAUTZA**

**INDIA- NIKARAGUA  
GUATEMALA**


**Basadi, 5 ZUMAIRA**



Erribera kalea Telefonoa: 861523  
**ZUMAIA**



Trenbidea, lehen Urola pasatzen zen tokitik joango da, azpiko pasabidea barreneraino luzatuz.



Hauxe da estazioak izango duen itxura berria. Gaur egungo andenek betetzen tokia aprobetxatuz, autobusentzako kotxerak, tailerrak, zerbitzuak eta abar jarriko dira.



Urola trenak guztion gogoan dirau oraindik.

## Manuel Esnal:

### "Aldaketak egokiak iruditzen zaizkit"

Aditu baten iritzia jakin nahian, Manuel Esnalengana jo dugu, 40 urtetik gora izan baitzen geltoki buru eta hango berri ederki baitaki.

Baleike

**-Orain egin behar dituzten obra horiei buruz, ze iritzi daukazu?**

Aldaketa hauek oso interesanteak dira, zergatikan jendeari erreztasunak ematia da. Zenbat eta batuago jarri trenak eta autobusak, hobeto. Eta gainera, Eusko Trenbideak denak bat hartu ditu; ba neri egokia iruditzen zait, dotorea.

**-Urola zaharra ere kendu zuten...**

Bai, autobusak lehen baino

hobeto daude; hasiera aldean aldrebestasun haundia izan zan; jendea ez zegon ohituta gainera. Milloi askoren galera zala ta, utzi egin behar zala erabaki zuten. Baina neretzako ez zan kendu beharrik izango, lehenago behar zan bezela mantendu izan balute. Ikutu ere egin gabeko posteak zeuden, urte askotan, herdoilak janda.

Okerra aurretikan etorri zan; baskongadoak trenbidea mantentzen oso iaiuak ziran, mantenimendu ekipo zoragarria zuten. Gero FEVEra pasa

zenezan, estazioa hankaz gora jartzen orduan hasi zan.

**-Lanean al zinen Urola kendu zutenean?**

Serbizioan nengoen, bai; eta tristetu egin nintzan, zeharo; estazioa hilda geratu zan. Udaran Urolana serbizio ederra zan, milaka lagun etortzen ziran eta autobusean ezin leike hola ibili. Baina jendia ohitu egiten da; orain dabilzan autobus horiek ere zoragarriak dira, jende piloa hartzen dute.

**"aldaketa hauek oso interesantiak dira, zergatikan jendeari erreztasunak ematia da"**

**-Autobus piloa jarri dute, Donostia aldera ere bai. Ez al dio honek trenari jende asko kenduko?**

Ez zait iruditzen; endemas orain hor juaten dira zahar pila, jaungoikoaren izenian, edadekoak, batere pagatu gabe. Trena beharrezkoa da, hori bai ez dela galduko.

Orain ederki daude; ez det nik ezagutu orain bezela; zuzen dabilza trenak, oso. Garai batian ibiltzen ziran aberiatuta, edo retrasoarekin. Gero eta suabeago dabilza; endemas orain Oriotik Aginaga aldera obrak egin zituztenetik.



**MENDI - ONDO**  
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
- \* Banakoak
- \* Kolektiboak
- \* Satellite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.

Axular 14  
20750 ZUMAIA

Telefonoak:  
860074 - 861569



**SUKALDEKO  
ALTZARIAK**

DORNUTEGI  
ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 beheer  
Telefonoa: 862051

20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)



**-Istripu larri bat ere gertatu zen aspaldi, ezta?**

Bai, hura 1941an gertatu zan, otsailak 14an, gabean. guk leiho batetik ikusi ginun, Mendaroneko etxeko ganbaratik; teilak ere erori egiten ziran haizearekin.

Esaten zuten haizeak adar bat bota zuela, hor akazia asko zeuden, ezker-eskubi, kablean gainean adarra erori eta oker handia hor izan zan. Makinerian gaineko pandografoarekin endredatu zanian gelditu zan trena; jendiak leihoak ireki eta haize boladak bota omen zituan uretara, denak katian behera. Hurrengo goizean bertan, bi-hiru kotxe zeuden trenbidean, eta bat orduantxe erori zen, Lagun Artea tailerraren aurrera. 21 edo 22 hil zirala esaten zuten, herituak ere asko ziran. Larunbata zan eta jende piloa zihoan, 11-12 kotxe izango ziran; trenak luziak ziran orduan.

**"Neretzako Urola ez zan kendu beharrik izango, lehenago behar zan bezela mantendu izan balute"**

**-Istripu gehiago ere izan al dira Zumaian?**

Bi edo hiru deskarrilamendu ere izan dira, agujen falloगतik, baina hildakorik ez zan izan. Beste behin Bergarako zahar bati hankak moztu



91ko gabonetan bota zuten hainbeste urtetako historia zuen estazio zaharra.



Estazio zaharra botatzenetik, hauxe izan da Zumaia izan duen estazioa.

zizkioten, salto egin eta trenak harrapatu zuenean. Trenak gaintetik pasatakuak ere badira, baina ezer ez. Behin ikaragarritzko eroria egin zuen Isabel Antiak, goitik behera andenera erori eta gero, trena pasatzera zihoan baina geratzea lortu zuten; susto


ederra hartu zuen, baita guk ere.


Beste batek poste bat ere jo zuen jeisteko salto egiterakoan. Benito Irigoien ere, uste det, Artiako tunela baino lehen atetik goitik behera erori zen, atea ireki zitzaionean, mendian behera; gaztea izango zen, 10-11 urte.

**LANDARE  
LOREDENDA**  
Baltasar Etxabe, 5  
Tel. 862472 ZUMAIA

**ZUMER  
TABERNA**  
Erribera kalea, 2  
Telefona: 861125  
ZUMAIA

**MIREN**  
BAKAILOAREN - ETXEA  
KALE NAGUSIA, 4 - TEL. 86 10 01 - 14 30 61  
ZUMAIA





# KONTUZ... ZOZKETAK!!!

**Exiji diezaiogun gure udalari, militarrekin duen kolaborazioa eten dezan.**

Urtero bezala, aurten ere, azaroan soldadutzara joan behar dutenen zerrendak egin ondoren, zozketa baten barruan sartuko dituzte, nora joango diren "aberriari zerbitzua" ematera erabakitzeko.

*Gu Ez Goaz*

Jada urte batzuk dira zenbakiak bonboan sartzen ez direla, orain modernitatearen sofistikazioak armadara ere iritsi direla erakusteko edo ordenagailuaren bidez erabakitzen da jendearen norakoa.

Gauza asko aldatu dituzte, erortzen ari den etxeari pintura geruza zuria eman diote: ia jende gehiena bere jaioterriko "erregio militarrean" geratzen da (Burgos edo Jaka gure jaioterria izango litzateke logika honetan), bakoitzaren aukeran dago nora joan, urtearen hilabetea e.a. Hala ere funtsean gauza bera da, militarren esku geratzen dira urtero 17 urteko gazte asko, beraien bizitzako zati garrantzitsua lapurtuz eta bere etorkizun hurbilaren jabe eginez, armadaren oinarria den soldadutzak jarraipena eduki ahal izateko.

Armadaren botereari eusten dion sistema honen aurkako oihartzunak hasi zirenean (objezioaren mogimentuak eta azken urteetan intsumisioarena) estatua zerbait egin behar zuela konturatu zen gizarteak



*Ba nik intsumisioa izan nahi dut.*

eskatzen zuena asetzeko eta horretarako onartu zuen "Kontzientzi eragozpenaren legea" edo objezioaren legea. Lege honek eragozleen eskubideak bermatzen ditu (ez guztiak, egoera jakin batzuetan besterik ez) eta Ordezko Zerbitzu Soziala (OZS) martxan jartzeko bideak ireki zituen.

Ordezko zerbitzua eta soldadutza, teoriarik berdintasun mailan egongo lirazke eta edozeinek du

**Gaur egungo  
armada ereduak  
udaletan du  
oinarria, armada  
udaletan hasten da**

eskubidea bat edo bestea aukeratzeko. Baina, praktikan ikusten duguna erabat ezberdina da. Soldaduzkarako zozketa automatikoa da, bakoitzak ezer egin gabe automatikoki soldaduzka joateko taldean sartzen gara, objezioaren bidea aukeratu nahi izanez gero, norberaren esfortzua eskatzen du, informazioa eskatu, inprimaki batzuek bete, Gobernu Zibilera joan, bulego eta paper administratiboaren artean mogitu, e.a.

Beraz, berehala konturatzen gara berdintasun hori ez dela benetakoa, nagusitasuna soldadutzari ematen zaio eta objezioa alternatiba gisa planteiatzen da, intsumisioa bide marginalizat geratuz.

Guzti honek beste arazo batean sartzen gaitu, gure ustez gako

## JUARISTI JATETXEA

- \* Arrainak eta haragiak aukeran
- \* Eguneko menua
- \* Jangela klimatizatua

**Basadi Auzategia, 10 ZUMAIA Tfnoa: 861853**



**KAFETEGIA**

Itzurun kalea, z/g Telefonoa: 862124 20750 ZUMAIA

bihurtuko dena hurrengo urteko borroka antimilitaristan, hau da, udalen zeregina sistema militarren barnean.

Ezin dugu ahaztu, aurreko guztiaren sostengua udalen gain dagoela, udalek egiten dute zozketarako erabiliko dituzten gazteen zerrendak, sistema militarren oinarri bihurtuz. garbi eta motxean esateko, gaur egungo armada ereduada udaletan du oinarria, eta gehikeritxo bat esategatik, armada udalean hasten da.

Badaude Euskal Herrian armadari kolaborazioa ukatu dioten udalak, hauek auzipetu egin dituzte eta zigortu ere. Berez zer egin egoera honen aurrean? Ikusita intsumisioak duen atxekimendu soziala, udal eta

beste erakunde barne, zergaitik ez jarraitu mogimentu honek ematen duen eredu eta udal intsumituak bihurtu armadari laguntza ukatuz. Udal demokratikoak baditugu, nola jar daiteke epaileen esku, jendeak hautatutako ordezkarien honelako erabaki bat?

Gure herria adibide hartuta, Udal pleno batek onartutakoak, honela dio:

3. Gaur egun indarrean dagoen Soldadutzaren Legea eta lege honen arabera udalak bete behar dituzten zerbitzuak berehala deuseztatzea eskatzen dugu.

4. Udal honek Kontzientzia Eragozpenari buruzko informazioa emateko eta apoiatzeko konpromezua hartzen du, zentru publikoetan hitzaldiak antolatuz

(instituetan, ikastoletan, eskoletan...), eta bereziki eta indibidualki, soldadutza egin beharrean dauden gazte guztiak informatuz, Gaztedi komisioren bidez.

### **Ez da nahikoa intsumisioa apoiatzearekin, ekintza errealetara pasa beharko dugu egunen batean armadaren erro hauek hausteko**

Gure iritziz gizarte ez militarizatua lortu nahi badugu guztion lana da udalak militarrei laguntza ez ematearen eskaera, ez da nahikoa intsumisioa apoiatzearekin, ekintza errealetara pasa beharko dugu egunen batean armadaren erro hauek hausteko.

Honelako erabakiak arazo legaletan sartuko gaitu, legea hautsi egin behar baitugu aurrerapen sozialak lortzeko, hala ere Euskal Herriko udal gehiengo batek hartutako erabaki balitz ez litzateke horren zaila izango. Bestalde beti daude arriskuak ideiak aurrera eraman nahi baditugu, baina intsumisioaren mogimentuak erakutsi duen bezala posible da ezetz esatea eta gauzak aldatzea bide baketsuz baliatuz.

Badakizue utopiatik errealitatera urrats txiki bat besterik ez dago, guztiok egindako presio sozialarekin dago urrats txiki hori ematea ala ez. ■



*Ze zatarra haizen, motel!*



**SURF DENDA**  
**Taosa**

- \* Bainujantziak
- \* Surfeko tablak
- \* Poliesterrezko plastifikatzeak
- \* Erropetako serigrafia
- \* Toallak
- \* Erropak

Erribera Kalea, 17 - 20750 ZUMAIA

**BALEIKE**

**PUBLIZITATE BIDERIK EGOKIENA**

# OGINO: HAURDUN GERATZEKO METODO BIKAINA


Metodo honek egutegiaren diktadura ezartzen du, inolako segurtasunik eskeini gabe

Oraingo honetan, haurdun ez geratzeko erabiltzen diren metodo "naturaletaz" arituko gara. "Naturalak" deitzen dira inolako gailurik erabiltzen ez delako. Hauen artean "Ogino" metodoa aztertuko dugu: Zertan datza? Komeni al da erabiltzea? Zergatik da Eliza Katolikoak onartzen duen metodo bakarra?

*Baleike*

Baleikeko aurreko bi zenbakietan, "oztopo" sistemako bi antisorgailutaz aritu ginen: gizonentzako eta emakumeentzako kondoietaz. Orain berriz, gailurik gabeko edo sistema naturalean oinarrituriko "Ogino" metodoa nahiko genuke aztertu. Erabiltzea komenigarria den ala ez erabaki aurretik, zertan datzan jakin beharko degu, ez ta?

Oginok -mediku japoniarra-, 1928. urtean haxe ikusi zuen emakumearen zikloan: obulazioa zikloaren erdialdean ematen zela normalean. Beraz, harreman sexualak (penetrazioa) egun jakin batzutan ebitatuz, era berean, haurdunaldia ebitatuko litzateke. Teorian oso ximplea dirudi; praktikan berriz, gauzak askoz konplexuagoak dira.



*Ogino zahartzaroan. Eliza Katolikoak eman dion babesaz harro-harro.*

Teorian, obulazioa hilabete-koaren lehen egunetik kontatzen hasita, 12 eta 16. egunen artean gertatzen da. Oginok proposatu zuen 14 egunen zehar harreman sexualak ez izatea, 8. egunetik 21. egunera, segurtasun gutxiko egunak baitira. Gainera, aurretik beste bi egun gehitzea proposatzen du, arrisku gutxiago izateko.

Baina aipatu dugun bezala, guzti hau teoria hutsa da, eta praktikak berak erakutsi digu ustela dela gainera. Harreman sexualak

**"Funtsean komunikazioa den zerbait, egutegiak markatzen digun betebeharr bat bihurtzen digu".**

ebitatzean oinarriturik dagoen sistema honek, frustrazioa sortzeaz gain, ez du funtzionatzen. Ez dago haurdun



## OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057  
20750 ZUMAIA

## ZALLA TABERNA - ERRETEGIA

- \* Plater konbinatuak
- \* Otartekoak
- \* OILASKO ERREAK  
(Enkarguak jasotzen dira)

San Pedro, 4 Tel. 862387 ZUMAIA

geratzeko arriskurik gabeko egun bakar bat ere emakumearen zikloan.

Baina, joan gaitezen pixkanaka. Esan degu frustrazioa sortzen duela. Izan ere, metodo honek proposatzen duena abstinenzia luze bat da. Egunak, arriskutsu eta arriskurik gabekotan banatzen ditu: "gaur tokatzen da eta bihar ez". Harreman sexualak programatu egiten ditu, lan orduak eta oporrak programatzen ditugun bezala; eta horrek, sexuak bere erakargarritasuna eta bapatekotasuna galtzea ekartzen du. Funtsean komunikazioa, harremana, den zerbait, egutegiak markatzen digun betebeharrak bat bihurtzen digu. Eta guzti hau gertatzen denean, sexuaz gozatzeari uzten diogunean, haserreak, tentsioak eta arazoak datoz.

Hori alde batetik. Bestetik, azpimarratu degu ez dagoela arriskurik gabeko egunik. Emakumea

ez da erloju bat, ez da zehaztasun osoz funtzionatzen duen makina japoniar bat. Emakumea pertsona bat da, eta horregatik bere zikloa alda dezaketen hainbat zirkuntzantzien menpe dago: gaixotasunak, tentsioak, estres bedeinkatua, eta beste mila faktore.

## "Sistema honek, frustrazioa sortzeaz gain, ez du funtzionatzen"


Horrela, obulazioa aurreratu edo atzeratu daiteke, Ogino jaunaren kalkuloak eta egutegia pikutara joanez. Eta hori gutxi balitz, beste arazo bat ere azaltzen zaigu: espermatozoideek maginaren barrenean egunak bizi irauteko

ahalmena dute, obuloaren zai.

### Elizak onartzen du

Ez degu ahaztu behar Ogino metodoa dela Eliza Katolikoak onartzen duen metodo bakarra, beste antisorgailu guztiak baztertuz. Zergatik gomendatzen du ba Elizak metodo hau? Bi arrazoiengatik: Hain zuzen ere, harreman sexualak ebitatzean oinarrituriko metodo bat delako, eta, funtzionatzen ez duelako, haurdun geratzea oztopatzen ez duelako.

Ondorioz, esan dezakegu Oginoren metodoa baliogarria dela, baina haurdun geratu nahi badegu, ez berau ebitatzeko. Horretarako baditugu beste hainbat antisorgailu, askoz ere seguruagoak eta askatasun gehiago ematen digutenak. ■



**xirula**

ARGAZKI ETA BIDEO  
ERREPORTAIK  
ERREBELATZEAK  
KAMARAK  
MUSIKA

TELEBISTA  
BIDEO  
HI-FI

Erribera kalea, z/g  
Tel. 861705

20750 ZUMAIA

**Parai**  
Informática

Basadi Auzategia, 10-A atzean      Telefonoa: 862228      ZUMAIA

# Igor Beristain, goi mailako txirrindularia

Aurreko denboraldian ziklo-kroseko mundu txapelketan izan genuen

Mutil hau hamar urtekin hasi zen karreretan parte hartzen. Orduetik hona beste hainbat urte pasatu dira berarentzat gauzak asko aldatu direlarik. Haseran beste edozein txirrindulari bezelakoa zen, ez oso ona ezta eskasa ere. Baina denboraren eta urtetan eginiko lan gogorraren fruituak iritsi zaizkio.

Baleike

Joan den urtean ziklo-krosean onenen artean ibili ondoren, Igor Beristain Munduko Txapelketan izan genuen eta errepidean ere nahiko emaitza onak lortu zituen. Momentuz talderik ez duen arren, aurten iaz baino hobeto ibiltzeko esperantza du.

**Noiz eta nola hasi zinen txirrindularitzan?**

Nere lehenengo bizikleta bederatzi urtekin erregalatu zidan aitak baina konpetizioan hamar urtekin hasi nintzen, adin hau bete arte ezin baitzen karreretan parte hartu. Horregatik, hasiera batean zikloturista moduan ibili nintzen.

**Idolorik izan al dezu?**

Bai, betidanik Marino (Lejarreta) izan det idolo eta gehien mirestu izan dedana, nahiz eta beste batzuk ere egon diren.

**Kanpoko jendearekin konpetitzeko ez dezuela maila handiegirik leporatzen zaizue ziklo-krosean zabilzatenoi. Zer fal**



Plantarik ez zaio falta behintzat.

**falta zaizue maila horretara heltzeko?**

Hala da. Kanpoan oso maila handia dago eta Euskal Herrikoarekin konparatuz ez du zerikusirik. Atzerrian uda garaian hasten dira dagoeneko ziklo-kroserako prestatzen, hemen berriz askoz beranduago.

**"Marino Lejarreta izan det betidanik idolo"**

**Zeren Euskal Herrian hainbat nazioarteko proba egitea zerbaitetarako balioko dizue.**

Esperientzia hartzeko balio dute eta korritzeko erritmoa ere gogorragoa da. Jende oso ona etortzen da. Gertatzen dena da

Espainiatik kanpora egiten diren probetan diru gehiago egoten dela eta honek noski jende gehiago erakartzen duenez, preparazioa ere hobetagoa edukitzea eskatzen du.

**Aurreko urtean ziklo-kroseko mundial nagusian ikusi zintugun. Zer nolako esperientzia?**

Oso esperientzia positiboa izan zen, gustora aritu nintzen nahiz eta egur handia jaso. Lehenengo aldiz parte hartu nuenez mundial batean poz handia hartu nuen. Ikasi ere asko egiten da.

**Munduko onenen artean konpetitzea zerbait berezia izango da, ezta?**

Bai, bai, motibazioa izugarria da. Ikusten zera onenen artean zabilzala korritzen eta beno asko motibatzen zera. Mundial batean maila oso altua

**gooiy**  
HAUR JANTZIAK  
Amaiako plaza, z/g  
Telef. 860959  
ZUMAIA

**CORO PRIETO**  
Esteticista  
Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g  
Telefona: 861322  
ZUMAIA

julio curiel  
PELUJERO  
Erribera kalea  
Telefona: 862334



dago eta zerbait egitea zaila da.

**Neguan ziklo-krosean aritzen zeran arren, errepideko txirrindularitzan ere jarduten zera, nahiko ondo gainera, ez?**

Ziklo-kroseko denboraldia hasi baino lehenago, errepidean konpetitzen jarduten naiz. Errepideko denboraldia bukatu baino lehen ordea, puntu on bat lortu eta gero, atseden txiki bat hartzen det ziklo-kroseko denboraldiari aurre egiteko.

**"Arazo batzuk direla eta une hauetan talderik gabe nago"**

**Hala ere, bietatik zein dezu gustokoena?**

Oraindik dekubritzeko daukat. Momentuz ziklo-krosa gehiago gustatzen zait, baina errepidean ere proba batzuk egin nahi ditut; noraino iritsi naitekeen jakin nahi det. Ez bazait ondo irteten ziklo-krosean jarraituko det aukera gehiago baitaude, jende gutxiago dabilelako eta ondorioz maila ere ez da errepidean bezain altua.

**Oñatiko talde batean ibili ondoren, orain talderik gabe zaude. Nola gertatu da hau?**

Aurreko urteko ziklo-kros denboraldian Caravanas Oñate taldea sortu zen eta beste batzuekin batera ni fitxatu ninduten. Errepidean ere

talde horrekin ibili nintzen baina txirrindulariekin gaizki xamar konpondu ziren eta azkenean taldea utzi beharra izan genuen. Diru kopuru bat luzatuko zigutela garantizatu ziguten baina azkenean ez digute sosik ere eman.

**Arraroa da talderik gabe egotea, etorkizun handiko txirrindulari bat zerala kontutan hartzen badegu?**

Nahiko arraroa da bai, baina gauzak horrela gertatzen dira. Edozein kasutan, hemendik gutxira talde berri bat sortzeko asmoa dago eta pixkat horren zain nago, aurrera ateratzen den edo ez. Errepideko txirrindularitzan ere seguruenik talde berri batean arituko naiz. Arazoa da gaur egun, beste hainbat arloetan bezela, txirrindularitzan ere diru arazo dexente daudela eta ez da erraza

talde berriak sortzea.

**Aurtengo helburuak?**

Preparazio aldetik joan den urtean baino hobeto nago. Aurreko denboraldian soldaduskan egon nintzela eta, preparazioz nahiko juxtu ibili nintzen, nahiko berandu hartu nuelarik forma. Aurten hala ere, esperantza asko ditut denboraldi berriari begira, onentsuen artean egoteko esperantzarekin.

**Zumaiako txirrindularitza ze goeratan dago?**

Oso tristea da Zumaiako txirrindularitzak duen egoera. Jende gaztea ez da animatzen bizikletan ibiltzea eta dabilenak ere ez du gehiegi irauten, afizionatu mailara iritsi orduko utzi egiten dute. Horregatik hemendik dei bat luzatzen diet gazte guztiei anima daitezela bizikletan ibiltzera, beste edozein kirol bezelakoa dela. ■



*Punta-puntan ibiltzeko itzaropen osoa duela adierazi digu Igorrek.*

KOSTA  GAS

GAS ETA  
KALEFAZIO  
INSTALAZIOAK

**Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)**

**expert** 

**ELEKTROGAILUAK**

Mertxe Aizpurua

expert eta  
Repsol-Butanoren  
Banatzaile Ofiziala

**ITZURUN**



**KIROLAK**

---

Amaiako plaza, 13  
Telef. 860758  
20750 ZUMAIA

## ROKODROMOA NOIZKO?

**Eskalada gero eta hedatuagoa den artean, rokodromo baten beharra nabarmena da Zumaian.**


Eskalada, oraindik orain Zumaian ezagunegia ez den kirol bat bezala ikusia dagoela esan daiteke. Kirol honek duen eragozpen nagusia berau praktikatu ahal izateko leku egoki bat da batipat, ez bait dira ugariegiak pareta egokiak gure inguruan. Une hortatik aurrera nabarmentzen da rokodromo baten beharra.

*Zumaiko eskaladore taldea*

Gainera neguaren etorrerarekin arazoa areagotu egiten da, eguraldi txarra eta gauak egunari jaten dizkion orduen ondorioz. Baina honetarako asmatu zen hain zuzen rokodromoa deritzon instalakuntza. Rokodromoa harrizko horma baten imitazio bezala definitu daiteke, bere kokapena polikiroldegi baten barrukaldeko horma batean egokia delarik erabat.

Era desberdinetakoak daude kalidadearen arabera, helduleku artifizial pila bat paretean sartuz osaturiko eskalada bideak eskeintzen dituenetik hasi eta haitz naturalaren imitazio ontzat jo daitezkeen metro karratuko panelez osaturikoeta bitartean.

Azken finean eskaladarako eszenario artifizialtzat jo genezakeen zerbait da rokodromo bat. Baina behar ote dugu Zumaian horrelakorik? Erantzuna baiezkoa da gure ustez. Lau katu baino gehiago gara herri honetan eskaladaren ingurune berezi horretan geure burua zirikatutik



*Zumaitik Etxauriraino ere joan ohi dira eskalatzera.*

sentitzen dugunak. Gainera, negu partean eguna motza izateak batetik eta sarritan eguraldiak erreztasunik ez emateak bestetik, eskaladarako babesleku baten beharra eskatzen digu.

Baina kontu hauek ere badu bere histori apurra gure herri honetan. Rokodromoaren kezka honek eraginda, eskalatzen aritzen garen zenbati pertsona bildu eta udalari proposamen bat luzatzea bururatu zitzaigun.

**Sarritan eguraldiak, eskaladarako babesleku baten beharra eskatzen digu.**

Horrela kontuak, kultura batzordeko buruarekin bilera bat egin genuen, rokodromoaren gaia mahai gainean jarritz. Gainera era honetako eraikuntzetan iharduten duen enpresa gipuzkoar bateko ordezkari bat egon zen bertan, rokodromoak, aurrekontuak eta bestelako xehetasun

guztiak azalduz, bertan azpimarratu zuelarik, Zumaiako polikiroldegiak gisa hontako instalakuntza bat ezartzeko betetzen dituen kondizio egokiak.

Dena dela, gure proposamena popatik hartzera bidali zuten era elegantean, nola ez! Udal kirol patronatua sortzekotan zela eta esan beharrekoak bertan botatzeko erantzun zigutelarik. Dirurik eza ere aipatu zen. Guretzat aitzaki hutsa da hau, bost milioi inguruko kirol instalakuntza eder bat izango baikenuke, eta gainera dirua hiru urtetan zehar eman daiteke, lanak ere urtez urte eginez gero.

Bukatzeko, esan nahi genuke kirol portu famatuarekin milaka milioi gastatuz, herri honen eta batez ere bere gaztediaren etorkizuna lurperatu nahi duten garai hauetan, guretzat kaletik piska bat aldentzeko alternatiba izango litzatekeen ekintzei muzin egiteak izen bakarra duela: Hipokresia. ■

# ASTEBURURAKO GAZTE IRTEERA

Azaroak 19 eta 20an izango da Bidarrai aldera (Iparraldea).

**Irteera honetan ekintza ezberdinak burutuko dira: puenting, kobazuloak ikustea, mendi irteera- orientazioa, eta abar.**

Baleike

Iaz izandako esperientzia zabalduz, eta *Beste aukera bat* kanpainaren barruan astebururako gazte irteera bat antolatu da, Zumaiaiko Gazte Batzordea eta Udaleko Gaztedi Batzordearen artean.

Aurten *Beste aukera bat* kanpaina hau ia urte guztira zabaldu nahi da, hilean behin zerbait antolatuz. Azaroan, hilak 19 eta 20an Bidarrai aldera joateko asmoa dago, larunbat goizean irten eta igande arratsaldean buelta eginez.

Mendigorri elkarteak izango da ekintzak aurrera eramateko arduraduna eta era guztietakoak izango dira hauek; mendi irteerarekin batera orientazioa landuko da, kobazulo bat barrutik ikusteko aukera izango da, eta ausartenek puenting egin ahal izango dute. Adierazi digutenez, azken ekintza hau egiteko zubia ez omen da oso handia, baina bai oso polita.

Gaua Bidarrai bertan igarotzeko asmoa dago, horretarako prestatua dagoen aterpetxe batean.



*Kobazuloak, mendia, orientazioa, puenting, ... Badezu asteburu baterako plana!*

Aipagarria da baita ere ondoren zehazten ditugun prezioetan jatordu batzuk ere sartzen direla; baina egokiagoa izango da horrelako kontu denak azaroak 7ean egingo den bileran argitzea.

Prezioei dagokienez, 15etik 29 urte bitartekoen artean, lanik gabe edo ikasten dauden zumaiarek 5.000 pzt ordaindu beharko dituzte, eta lanean daudenek edo zumaia ez direnek 6.500. Bestetik 29 urtetik gorakoek ordaindu beharko duten kopurua 7.000 pztakoa izango da.

Izena emateko egin behar den lehen gauza KUTXAN (Ludotekaren kontuan) 3.000 pztako erreserba sartzeara da 01017135.3 zbkian.

Azaroak 4a baino lehen egin behar da diru sarrera, gero 7an antolaketa bilera egiteko Forondan arratsaldeko 7retan. Bilera horretara diru-sarreraren agiria, nortasun agiria eta langabezi edo ikasle txartela eraman beharko da. Bestalde, gaztetxoek gurasoen baimena behar dute, bai muga gurutzatzeko eta baita puenting egiteko. ■



*GAZTE TXARTELA: Forondan egin dezakezu, ostiralero arratsaldeko 5etatik 7ak bitartean.*



**SORGINA**

**ARTISAUTZA**

Baltasar Etxabe, 2 behea      20750 ZUMAIA  
Telefonoa: 143229

**KALARI** TABERNA

**JATE TXEA**

- \* Eguneko menua
- \* Plater konbinatuak
- \* Kaxuelak - Otartekoak

**Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA**

# EUSKAL-JAI SEGI BIZIRIK

Maiatzean jasandako kolpearen ondoren, "Euskal Jai" Iruñeako gaztetxeak zutik dirau.

Euskal-Jai, azken 17 urteotan Iruñeako alde zaharrean abandonaturik egon den ia 2000 m<sup>2</sup>tako pilotalekua da. Aurtengo maiatzean, Iruñeako Gazte Asanbladak okupatu egin zuen, egun ezagutzen dugun Iruñeako Gaztetxea sortuz. Horren ondorioz, hiru egunetan zehar poliziaren errepresioa jasan behar izan zuten.

Baleike/Iruñeako Gazte Asanblada

Joan den maiatzeko okupazioaren ondoren, Euskal-Jai, Euskal Herriko beste hainbat gaztetxeren eredu eta erreferentzi gune bezala azaltzen da. Bertatik egunero ehun pertsonatik gora igarotzen dira. Okupazioak iraun zuen lehen bost astetan, konpontze lanari ekin zioten: egoitzak txukundu, urtetako abandonoak sortutako zaborrak kenduz; argi eta ur instalazioak prestatu eta barrengo gela batzuk eta fatxada edertu; teilatua behin-behingo konpondu eta "txape" batzuk ezarri zizkieten poliziaren erasoak ahalik eta gehien agoantatzeko modukoak (lehen bi astetan bi desalojo saiakera jasan zituzten poliziaren aldetik). Guzti hori egiteko, Iruñeako herri osoari dei egin zioten larunbatetako auzolanean laguntzeko gaztetxea konpontzen.

Dena ez zen nekea izan ordea.



Gaztetxeko txupinazo eguna.

Gaztetxeak topaleku, komunikazio, erreindikazio eta festa tokia behar du, eta halaxe izan zen lehenbiziko bost aste horietan. Ostegunak intsumisioa bultzatzeko erabiltzen ziren, merendola intsumisoak antolatuaz eta kartzelaraino manifik eginaz intsumiso presoekin elkartasunean. Ostiraletan *Eguzki Banaketak* ezartzen ziren, material alternatiboaren merkatutxoak. Igandeak festa egunak ziren, herri jatetxea, teatroa, zinea, josketak etab.ekin. Eta astean zehar ere, makina bat iharduera puntual izandu ziren.

Guztira, okupazioaren lehen bost aste horietan, 6 bideo emanaldi izan ziren, bi haur festa, euskal jai bat, 2 musikaldi: folk eta flamenkoa, 3 antzerki saio, pelota partiduak eta 5 tailer montatu ziren: zeramika, gitarra, dantza, malabareak eta euskara.

Hontaz gain, Iruñeako herri kolektibo eta organismo guztiek eskura zuten nahi zutena egiteko. Askok antolatu zituzten bertan bere festa, proiektzio, solasaldi, batzarre, prentsaurrekoak etab., bere garaian 180 kolektibok sinatu zutelarik Iruñean gaztetxe bat jartzearen aldeko manifestua.

## Hirugarren kaleratze saioa

Okupazioaren lehen bi astetan bi kaleratze saio jasan ondoren, aurtengo ekainaren 15ean hirugarren kaleratze saio bat izan zen.

Goizeko 2ak aldera, gaztetxeko bigilantzi turnoak jende arraroa somatzen hasi ziren inguruko kale eta teilatuetan. Goizeko 6:30tan gaztetxeko jendea teilatura igo zen gaztetxea defendatzeko prest.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA AUTOAK

Juan Belmonte, 45  
ZUMAIA

Telefona: 861485  
Fax: 143143



Ordurako hamabi polizi furgoneta helduak ziren gaztetxera. Mandoaren agindua oso argia zen: "Disparad contra todas las cabezas que asomen", horrela balkoi eta leihoetatik begira zeuden auzotarrei ere pelotazoka hasi zitzaizkien.

Gaztetxearen aldameneko etxeko teilatutik, poliziak gaztetxeko teilatura iristea lortu zuten, bortizki desalojatu zutelarik. Hala ere, 5 lagunek teilatuko beste estruktura batetara ihes egitea lortu zuten. Bertan, 25 metrotako alturan zintzilik iraun zuten, poliziak peloteroekin tiro egiten zien artean. Kaleraturiko gazteak berriz, bortizki jipoitu zituzten, bati buruko bi tokitan hainbat puntu jarri behar izan zizkiotelarik.

Kaleratze operazioak iraun zuen egunetan zehar, frontoi inguruko kale guztietan zirkulazioa eten zuten. Bertatik igarotzen zen jendeari dokumentazioa eskatzen zitzaion, eta hiru baino lagun gehiagoz osaturiko taldeak desegiten zituztelarik. Guzti honen aurrean, bertako Auzo Elkarteak, Polizi Nazionalak alde egitea eskatu zuen komunikatu baten bitartez, alde zaharreko bizitza eta, aldi berean, hain garrantzitsua den merkatal iharduera galerazten ari zirelako.

Hiru egun horietan zehar, poliziaren babespean txikizio lanak egiten hasi ziren gaztetxean. Eskabadora eta makinak sartu, eta frontoiko lurra txikitzeaz gain, gelak banatzen zituzten ormak botatzen zituzten, gaztetxeko leiho eta atak tapiatuz. Helburua: gaztetxea izorratzea.

### Hiru egunetako borroka

Bost lagun horiek, gaztetxeko teilatuan hiru egunetan zehar irauteko, alde zaharreko auzokideen laguntza izan zuten. Hauek janari eta erropak pasatzen zizkieten ahal zuten eran,



Askatasunaren burni sarean.

baita prentsa, irratigailua eta alanbrerik gabeko telefonoa.

Bitarte hortan, milaka lagun manifestatu ziren desalojoaren aurka. Gaztetxe ingurura iritsi orduko, poliziak karga egin eta horren ondorioz, zenbait pertsona pilotaz eta porraz zaurituak suertatu ziren. Kasurik larriena, 16 urteko gazte batena, istiluetan parte hartu gabe, pilota tiro batez begia galdu zuena masailondoko hezurra hautsiz.

### Gaztetxeko teilatuan hiru egunetan zehar egon ziren bost lagun.

Kalean bizi den egoera ikusirik, gaztetxea txikitzen ari ziren langile batzuk piskanaka piskanaka beraien lana bertan bera uzten joan ziren.

Gaztetxeko jendearen azken kolpekada, ekainaren 16ko gauean izan zen. Alde zahar guztia zarata hotsez bete zen, auzo mailan antolaturiko kazerolada zela medio.

Ia Alde Zaharreko balkoi guztiak, beste hainbat auzotakoetaz gain, lapiko, zartagi, turuta eta musika tresnen soinutaz bete zen. Euskal Jairen alboko kaleetan zarata jasanezina bihurtu zen, jendea Gaztetxearen inguruan biltzen hasten zen bitartean. Mugitu gabe jarraitzen zuten polizien lankidetzan, noski, ke pote eta gomazko piloten bitartekoa izan zen, une hauetan karga gogorrenak egiten zituztelarik hiritarren kontra.

Hurrengo egunean poliziaren presentzia desagertu zen guztiz alde zaharretik. Ondorioz, 55 orduz frontoiko teilatuan egon ziren bost lagunak Gaztetxera jeitsi ziren, jendea ere inguratzen hasi zelarik. Piskanaka, gaztetxearen konponketa lanak martxan hasi ziren, batez ere zakarra ateratzekoa.

Egun, gaztetxeak bere betiko martxarekin aurrera jarraitzen du, gertaturikoa ahaztu ezin badute ere. Hala ere, lanerako gogo dagoen artean, arazo danen gainetik borrokatzea ez da zaila. Segi bizirik, Euskal-Jai!! ■

## Ikastaroak

\* **Argazki ikastaroa:** martxan dago dohaineko ikastaro hau eta bertan argazkigintzaren oinarritzko pausuk erakusten dira, eta baita txuri-beltzeko errebelatzea ere. Astearte eta ostegunero arratsaldeko 7retan Forondan, Zumaiaiko Argazki Elkartearekin.

\***Dantza sueltokoa:** Azaroak 7an hasiko da ikastaro hau eta bi hilabetetan zehar emango dira irakaspenak, astelehen eta asteazkenez arratsaldeko 7retan hasita. Izen-ematea Forondan, eta matrikula 2.000 pezta.

Gonbidapena: ikastaro, ekitaldi, emanaldi, hitzaldi, mahai-inguru eta antzekoak antolatzeke zuten ideien zai gaude.

## Agenda

**Ostirala 4:** DIAPOSITIBA EMANALDIA, Forondan, arratsaldeko 7,30etan Aitor Leizaren eskutik "**Fadura**".

**Ostirala 18:** DIAPOSITIBA EMANALDIA, 8retan Forondan, Kepa Gonzalezen lana: "**Gipuzkoa 1915-40**".

**Larunbata 19:** arratsaldeko 5,30etan, Aita Mari aretoan, herriko hiru abesbatzen saioa: Parrokiko San Pedro abesbatza, San Pedro Txiki, eta Zaharren Egoitzakoa. Sarrera: 150.

**Igandea 27, 12, 30etan,** Zumaiaiko Udal Musika Bandaren kontzertua, Aita Mari aretoan. Sarrera: 150 pezta.

**Asteazkena 30:** arratsaldeko 4,30etan, Foru Aldundiak Ertaineko ikasleentzat prestatutako programaren barne, Aita Mari zineman: Donostiako Txistulari Taldearen ekitaldia. Sarrera: 300.

### ANTZERKIA


**Azaroak 11an,** gaueko 10etan, Aita Marin, "**Markes baten alaba**" Mutrikuko Goizeko Izarra taldearen lana. Sarrera: hurrek 200 eta helduek 500 pezta.

Joan den mendearen erdi aldera gertatutako historia batean oinarrituta idatzi zuen Jon Etxaidek, donostiar idazleak, antzerki hau.

Maitasun istorio bat da eta Mutrikuko herrian kokatzen da gertaera; markesaren alaba arrantzale gazte batez maitemintzen da eta maitasun hori aurrera ateratzeko hamaikatxo traba eta oztopo gaintitu beharko dute gizarteak eta familiak maiteminduak banatzeko jarritakoak, hain zuzen.

Mutrikuko arrantzaleen ohiturak gertaerak eta pasadizo xebreak ere azaltzen dira. Garaiko gizartean bizi-bizirik zeuden giza maila ezberdinak eta elkarren arteko harremanak ere ederki azaltzen dira obran zehar.

Inbidia, maitasuna, jakinmina, handinahia, traizioa, ..., era guztietako giza sentimenduak azalazalean daude antzezlan honetako kresal usaina darien hitzetan jasota.



Horrelako argazki kurioxoak ikusiko dira hilak 18ko diapositiba emanaldian.



**AIZPURUA**

LIB  
R  
U  
D  
E  
N  
D  
O  
P A R I A K

Aita-Mari Auzategia, 17  
Telefonoa: 861569  
20750 ZUMAIA

Opari artikulua

**algorri**

Lurrindegia



Erribera kalea, 5 ZUMAIA Telefonoa : 862398

# BI PELIKULA BIKAIN AZAROAN

Zine-Forumaren barruan "Malcolm X" eta "Los amigos de Peter" ikusteko aukera izango dugu.

**AZAROAK 3**  
**GAUEKO 9,30etan**

**Izenburua:** "Malcolm X"  
(1992) 200 minutu  
**Zuzendaria:** SPIKE LEE  
**Aktoreak:**  
Denzel Washington  
Angela Basset

Spike Leek Malcolm X iraultzaile beltzaren bigrafia zinemara eramaten du eta sekuentzia oso gutxitan aski garbi adierazten du zer bide duen beltz behartsu batek New York-en bizitzan aurrera egin ahal izateko: musiko, txuloputa, lapurra edo boxeolaria. Egoera honetatik abiatuz Malcolm-en nortasun handia erakutsiko du. Zuzendariak ikuseraziko digu zer indar eta itzal eduki zuen beltzen artean lider honek, zurien gizartearentzat arriskutsua bihurtu arte.

Malcolm-ek helburu bakarra izan zuen: zurietatik at beltzen soziedade independente bat eraikitzea. Malcolm garai hartako Marthin Luther King-enganik oso urruti ibili zen, honek zurien gizartean berdintasuna eta giza eskubideak aldarrikatzen zituen bitartean, Malcolm-ek beltzen poterea (Black Power) aurrera eraman nahi izan zuelako. Sistemaren aurkako buruzagi denak bezala asesinatua hil zen. Filme oso luzea izan arren, txistu batean joaten da.

**AZAROAK 17**  
**GAUEKO 10,15etan**

**Izenburua:**  
"Los amigos de Peter"  
(1992) 102 minutu  
**Zuzendaria:**  
Kenneth BRANAGH  
**Aktoreak:**  
Kenneth Branagh  
Emma Thompson  
Stephen Fry

Bere hirugarren filma da hau, eta 1993an beste bat egin zen, Shakespeare-n eleberri batean oinarrituz, "Mucho ruido y pocas nueces". Hau ere kategorikoa. Garbi dago zinema munduan, zuzendari artean, haundia izatera iritsiko den artista baten aurrean gaudela.

Branagh-en filma denek bereizgarri nabarmen bat dute: eskuartean lan hirukoitza hartzen duela: gidoilari, aktore eta zuzendari.



Hemengo hauek dira Peter-en adiskideak. Azaroak 17an ikusteko aukera ederra dezu.

"Los amigos de Peter" adikisdetasunari eginiko kantua da. Nahiko urte elkarrengandik urrunduak eta bananduak ibili ondoren, taldeko batek beste denei dei egiten die bere jauregira elkarrekin egun batzuk pasa ditzaten. Lagu zaharren elkar ikusteak zer sentimendu eta zirarra pizten dien azalduz, Branagh-ek bi gauza oso ondo frogatzen ditu: 1- Aktore-zuzendari oso ona dela, eta 2- pertsonen eta lagunaren sakontasunetan sartzen badakiela, era oso egoki, egiazkoz, eta garrantzitsuena, ikuslea entretenituz.

Nahiz eta antzerki estruktura izan eta Lawrence Kasdan-en "Reencuentro" (1984) filmaren antza eduki, bizitza propioa du, zinema da eta oso ederra gainera. Bizitza bezalakoa gazi-geza. Parrea eta mingotsa. Filma benetan gomendagarria, batez ere egungo gizarte egoista eta postmoderno honetan lagun izateak duen garrantzia azpimarratzen duelako.

## AMA SAY

# Euskal musikako animalari arraroa

Ama Say talde bizkaitarrak bere lehen diskarekin muga batzuk hautsi nahi izan zituen. Muga hauek oraindik mugiezinak direnez, gutxiengo batengana besterik ez dira heldu.

Baleike

90ko hamarkadan jaioa da. Beraien "ampliak" eta beren pertsonalitatea garai hauetara egokitu ahal izan dute, baina halere, gutxiengo batetan gelditu zaizkigu. Beraien apustua etorkizun irekiago bat eta korrante musikal guztiekin konpromezua edukitzea da. Ama Say da beraien izena, dagoeneko bi diska dituzte kalean. Lehenengoa "Ikusi ditut umeak kalean ametsak akatzen" deiturikoa da eta beraien desberdintasun nahi horrekin aurrera jarraitzen dute.

Pasa da dagoeneko urte t'erdia lehen diska atera zutenetik eta azken udara hontan zuzeneko CD bat ere atera dute. Bertan sei abesti ditugu; aurreko diskako bi eta Pixies taldearen bertsioko bat dira hauen artean eta banda honek zuzenean duen indarraren adierazgarri dira. Azken lana, "Say Ama" izenekoa kaleratu berri dute.

Lehen diskak ikusmin handia sortarazi zuen kritiko eta musikazaleak garenon multzo aipagarri



Lau bider lau... Ama Say.

batean. Influentzia askoz hornituriko diska honek (gehienbat Pixies antzeko musika) kalitate humil baina aparta du. Ezin dugu esan musikalki izar batzuk direnik, baina bada beraingan originaltasun berezi bat.

Talde hau ez da jende multzo izugarriak mugitzen dituen horietarikoa eta ez da hori beraien nahia egunkari baten elkarrizketa batetik jakin ahal izan dugunez. Ospetsua izateak talde batetan beharrezko aldaketak inposatzea dakar, eta askotan talde horiek beren musika aldatu beharrean

aurkitzen dira, interes ekonomikoak egoten bait dira medio. Ama Say ez dago hortarako prest. Axola zaien gauza bakarra zera da: egiten duten musika gustatzen zaien jendeen artean, eta beraien artean, erlazio zuzen bat edukitzea.

**"Beraien lehen diska kalean batere jo gabe atera zuten"**

**IHINTZA  
TABERNA**

Ortega y Gasset,3

Tfnoa: 860472  
ZUMAIA

**TXALAPARTA**  
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2  
20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 89  
Fax. 43 06 37

**JEANAR**

**LOREDE NDA**

LANDAREAK  
LOREAK  
HAZIAK  
ZERAMIKAK

Erribera, 1 Telefonon: 860375  
20750 ZUMAIA



Zumaiarrok aukera ezin hobeia izan genuen talde honen kalitatea ikusi ahal izateko. Iazko abuztuan beheko plazan ikusi ahal izan genituen Lin Ton Taun-ekin batera. Aipatutako azken talde honek sortu zuela ikusmin handiena ere aipatu beharrean gaude, bainan zestoarrak lehenak izan ziren eszenariora igotzen, honek esan nahi duen guztiarekin.

**"lehen diska  
honek ikusmin  
handia sortu  
zuen kritiko eta  
musika zaleen  
artean"**

Egia da ere Ama Say taldeak nahiko denbora gutxi zeramala jende aurrean jotzen. Horregatik interesgarria iruditzen zaigu aipatzea jende honek beren diska atera zuela ia inork ezagutzen ez zuenean, hau da, kalean batere jo gabe. Agian azkarregi ausartu zirela diska grabatzea ere jakina da, baina beraien egoeran eta beraien bizitzetan jaun eta jabe direnez, une aproposa iruditu zitzairen eta gauza garbiak edukitzea ere garrantziskoa da nahiz eta pixka bat arraroa izan jokaera hau. Dena dela hor ditugu kaña ematen. Gaur egun, zuzeneko esperientziaz hornituriko talde osatu bat dugu. Euskal Herriko banda onenen artean sartua dugu, eta etorkizunari begira, ziur gaude talde honi ere etorriko zaiola ordua beraien lana behar den bezala onartua izateko.

MAKETAK

## 6NEMEN9

Sarritan, zerbait desberdina sortzeak gure ideiak mugatzen ditu. Noski, oso zaila da orain arteko arau guztiak ahaztuz gauza berriak egitea.

Hori da askorentzat borroka, baina ez denentzat. Gauza berriak sortzeak ez du esan nahi beti beste guztia alde batera utzi behar denik, baizik ezagutzen ditugunetik, gehien atsegin ditugun ideiak hartu eta gure ikuspuntu barruan sartu ondoren landu. Badirudi, horixe egiten dutela 6NEMEN9 taldekoek. Ez dute zer ikusirik talde konkretu batekin, baina influentziak somatzen dira. Kontuz! influentziak ez dira kopiak.

Maketa bikain hau osatzen duten sei abestiek, zerikusi handia dute beraien artean, entzuten diren bitartean lan honen tinkotasuna nabariagoa egiten delarik unez une. Melodia guztiak sute bat bezala datoz, bero beroak beraren kitarreoak, bertatik begiak altzatzea uzten ez dituen sugarrak bezala dira, ahotsak aldiz, su barruan kiskaltzen ari den norbaiten negarrak dirudite.

*"Heure buruari beldur dion nonbait, eta besteak esan ohi dutenaren menera jartzen haiz"*

Elgoibartar hauen musika,

Euskal Herriko rock mugida berriari kokatu dezakegu, El Inquilino Komunista, Ama Say edota horrelako tendentzia jasotzen duten taldeen barnean. Bi urte terdi daramate Martxelo, Josu, Asier, Alberto, Juan, Mikel, Inaxio, Froi eta Aitorrek musikaren munduan (denak ez dira musikariak) eta aurten egin dute lehen grabazioa, Donostiako "Boomerang" estudioan. Ageri da presa gabeko lan bat dela, abesti guztiak detalle guztiakin osaturik bait daude, oso elektrikoa da baita ere ahotsa moldatzen dutelarik "Goazen hadi" eta "Legeak" lehengo aldea ireki eta ixten duten bi kantetan indar gehiago emanez. Beste guztiak, "Arratoia", "British T", "Heure buruari" eta "Joneren Balada" k hari zuzen batekin elkartzen dira, 6NEMEN9koek josten dutenarekin, rock gogor baino goxo batekin.

Ez dute zuzeneko emanaldi asko eskaini, bost bat, baina aukera baduzu, maketa hau entzutera eta 6NEMEN9koei ikustera gonbidatzen zaitugu. Ziur aski gustatuko zaizu. ■


*Demokrazia ba omen dugu gure zorionerako.  
Erljiioak nahi adina gure zorionerako.  
Legeak, legeak, arauak eta arau gehiago.  
Lege eta arauak amets guztiak suntsitzeko.  
Amets egin ezkeru kartzela zuretzat.  
Amets egin ezkeru kartzela gutxi da.*

6NEMEN9

**TXOKO  
TABERNA**

Artadi auzoa  
ZUMAIÁ


*Jesuskoa  
Faletxea*



*Araua 86-17-39 • Urtia Zumaiá*



**GURUTZEGRAMA**



**EZKER ESKUIN:** 1.- Aire ibilgailuak. 2.- Emaizta, dohaina. Nahastura trinko. 3.- Jainko egyptiarra. Hegazti harraparia. 4.- Erail. Azkenekoa. 5.- Amai. Ez ba. 6.- Ez ar. Nafarroako herria. 7.- Euskaldunak arrantza egitera joaten zireneko Kanadako lurraldea. Areagotzeko partikula. 8.- Bat. Norat atzizkia. Ut! 9.- XI. hilabetea. Putre. 10.- Kokondoaren fruitua. 3,1416. Nitrogenoaren sinbolo kimikoa.

**GOITIK BEHERA:** 1.- Lotsatiak. 2.- Emakumezko. Errepikatuz, txori mota. 3.- Galioaren sinbolo kimikoa. Ahuntzaren arrak. 4.- Euskal herrialdea. Ugari. 5.- Iparraldean, zara. Ibilgailu mota. 6.- Dirua eramateko larruzko zorroa. Bokala. 7.- Iodoaren sinbolo kimikoa. Arazo. Bokala. Fosforoaren sinbolo kimikoa. 8.- Zein lekutan. Lapurtu. 9.- Zurindegia. 10.- Suari dariona. Azkenekoa. Ogi egile.

**KATE HITZAK**

*Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker - eskubi eta goitik behera joan daitezkeela.*

**8 letra**

Arkupeak  
Gatibatu  
Pinturak  
Salatari

Aita  
Antz  
Aran  
Arto  
Atal  
Atea

Inor  
Kate  
Nora  
Okin  
Oren  
Ukan

**2 letra**

An  
Au  
Ba  
Er  
Is  
LI  
Un  
Ur

**7 letra**

Aretoak  
Atariko  
Kurloia  
Tolestu

Atso  
Data  
Ditu  
Egia  
Ekin  
Eria

**3 letra**

Idi  
Iro  
LII  
Tir

**4 letra**

Adar  
Adur  
Aiko

Fika  
Idia  
Ikur



**AGURRAK**

Mutu. asko hitzegin bai, baina idazteko orduan damutu!

Detritus. Baleiken tertzeroak eskalatzen agertzeko bakarrik ateratzen al dituk eskuak patriketatik?

Bai Apolo bai...

Patxi. Gortu! Laister diau dana piperpotoz beteta! JA JA!

Larfal. Ale honetan ez haiz argazki batean ere azaltzen! Ea kamara gehiago txupatzen diagun, motel!

Mutu: bla,bla,bla,bla,bla, bla,bla, bla,bla,bla,bla,bla, bla,bla,bla, farzista!

Ximitaixo bejestorioek hondarretan bakarrik erantzuten dute

Txintxi non zaude?, zein zera? nongoa zera? nondik zatoz? nora zoz? Santurtzitik Bilboa edo Portugaletetik Zumaira?

**ALDIZKARI HONEN SALMENTA PUNTUAK**

- Jesuskoa
- Errota
- Ogi Berri
- Arkupe okindegia
- Alai janaridenda
- Aizpurua liburudenda
- Olano liburudenda
- Erkibe
- Nikol kafetegia
- Inpernupe taberna
- Zalla erretegia

**G**utunak

**Abstentzioaren jokoa**

Bukatu da, zuzenbidezko estatu baten puntu gorenak, hauteskundeak, bere bukaera bilatu dute, kristalezko urna itxi batean.

Berriro ere botoek gure etorkizuna baldintzatuko dute beste lau urtetarako.

Hemendik aurrera estatistika eta ikerketek, "C.A.V."ren biztanleriaren nondik norakoak aztertzen saiatuko dira.

Jendea pozik dago, bere eskubide eta betebeharrak adierazi ditu eta jendearen zati horretan gazteok gure zeresana adierazi dugu. Guztiok gaude lasai, bide demokratikoak berriro ere garaile atera baitira, boteretsuak bere boterea

sendotu dute, eta honela banpiro hauek beste lau urtetarako xurgaketa bermatu dute.

Honela, alienazio prozesuak aurrera darrai, zenbait pertsonen lehengusu, anai,... lanpostu bikainak lortuko dituzte, beste zenbait pertsona (indibidualismoaren bitartez), perfekzioa ikutuko dute kolektibitatea eta duintasuna zer den jakitera iritsi gabe. Hala ere, "C.A.V" delakoan daude pertsona gaixtoen historietak, deabruaren tentazioa besterik ez dira izango. Honela irakaskuntza, errepresioa, etxebizitza, arazo sozio-laboralak, eta biolentzia besteak beste, gutxi batzuren islada direla adieraziko digute egunetik egunera komunikazio iturriek.

Ez du axola sistemak erakusten duen ustelkeria, ez dute axola zulo askotan aurki ditzakegun gazte askoren paranoiak, ez dute axola langabezi arazoak, ez dute axola gazteen inizatiba propioak bidean usteltzea, ez dute axola mila historia, zeren azken finean abstentzioaren bitartez, eta boto askoren norabideen ondorioz etika eta moralaz hitzegiten baitugu egunero.

Hau al da guztiok desio degun gizartea? Nerea ez behintzat, eta espero dut zuena ere ez izatea.

**P.D.:** Zorionak eta animo *Baleike* posible egiten duzuen guztiok.

**Nostra Culpa**  
(44.128.236)

**Abenduko zenbakia prestatzen eta lantzen ari gera jadanik. Zure gutun, iritzi, mezu edo beste edozein lan guk argitaratzea nahi badezu, bidal itzazu Foronda Kultur Etxera, azaroak 15a baino lehen.**

**95. urterako harpidetza**

**Harpidedun izateko amorratzen bazaude, utzi itzazu 1.000 ppta. zure izena, helbide eta telefonoarekin batera, Foronda kultur etxean, eta urte guztiko aldizkariak etxean goxo goxo jasoko dituzu.**



# Solozabal autoeskola

Gidariak lantzen onenak



## Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean.
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
  - Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta, 19 - Bis

Tel. 861416 • Fax: 861416

ZUMAIA

## Lehiaketa

Galdera honen erantzuna ezagutzen badezu, bidali ezazu Forondara azaroaren 22a baino lehen zeure datuekin batera. Asmatzen duzuenon artean, datorren urterako **5 harpidetza** zozketatuko ditugu. Anima zaitetze, eta zorte on!!

**Zein zen  
txakur  
patxangero  
honen  
izena?**

.....

